

## 2011ko urriaren 20a, Estatistikaren Munduko Eguna

### *Gazteen Euskal Behatokiak adierazle estatistikoaren sistema bat du, jende orok kontsultatzeko*

Estatistikaren Munduko Eguna dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) gogoratu nahi du gazteei buruzko hainbat datu estatistiko kontsulta daitezkeela bere [Adierazle Estatistikoaren Sistemari](#). 132 adierazle daude bertan, 11 gairen arabera egituratuak: biztanleria, hezkuntza, lana, emantzipazioa, osasuna, euskara, delinkuentzia, komunikazio-teknologia berriak (IKTak), aisia, balioak eta mugikortasuna.

Adierazle horiek hainbat iturritatik bildu dira, nagusiki, [EUSTAT](#) (Euskal Estatistika Erakundea) edo [INE](#) (Estatistikako Institutu Nazionala), baina baita Gazteen Euskal Behatokiak burututako ikerketetatik ([Argitalpenak](#) atalean kontsulta daitezkeenak) edo Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuek egindakoetatik ere.

Informazioa xeheaturik egonez gero, hainbat aldagai hautatu eta datuak horien arabera kontsultatzeko aukera ematen du sistemak: sexua, adin-taldea, lurralde historikoak eta eskualdeak. Hartara, kolektibo bakoitzari dagozkion datuak zehaztu daitezke Era berean, hainbat epetako datuak eskuragarri daudenean, sistemari sartzen dira, adierazlearen bilakaera aztertu ahal izateko. Sistemari esker, fitxategi osoak beheara karga daitezke, adierazlearen informazioa dokumentazio osagarriarekin osatu, edo eskatutako informazioarekin taulak edo grafikoak eratu.

Datu horiek beste modu batean ustiatzea behar izanez gero, eskaera zehatza egin daiteke, honako helbide elektronikora idatzita: [geb-estatistika@ej-gv.es](mailto:geb-estatistika@ej-gv.es)